



EBAZPENA, 2023ko urriaren 19koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuetan programazio didaktikoa eta/edo unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera epearen barruan ez entregatzeagatik baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko aukera ematen da, oposizio-lehiaketa bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta aipatutako kidegoetan sartzeko eta horra iristeko, oposizio-lehiaketa arruntaren bidez.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 28ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egiten da, oposizio-lehiaketa bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko, bai eta kidego adierazleetan sartzeko eta horra iristeko ere, ohiko oposizio-lehiaketaren bidez.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren 2. eta 3. ataletan xedatutakoaren arabera (ebazpen horren bidez, aipatutako hautaketa-prozesuetako oposizio-faseko eskabideak eta gainerako agiriak aurkezteko epeak eta proben datak zehazten dira), 2023ko irailaren 18tik 29ra bitartean txanda irekian eta desgaitasunentzako txandan onartutako izangaiek, bai eta baztertuta daudenek ere, baldin eta gora jotzeko errekurtoa jarri bazuten onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendaren aurka (ebazpenaren zain), programazio didaktikoa (ohiko oposizio-lehiaketaren kasuan) eta unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera (egonkortze-oposizio-lehiaketaren kasuan) entregatu behar izan zituzten.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urriaren 6ko Ebazpenaren bitartez, kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu zen programazio didaktikoa eta/edo unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera epearen barruan ez entregatzeagatik

Behin-behineko ebazpen horren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, eta behin aztertuak, bai eta oker baztertutako zenbait kasu ofizioz zuzenduta ere,

EBAZTEN DUT

1.– Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako aldi baterako enplegua egonkortzeko oposizio-lehiaketaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuan unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera epe barruan ez aurkezteagatik baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartzea.

2.– Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako oposizio-lehiaketa arruntaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuan programazio didaktikoa epe barruan ez emateagatik baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartzea.

3.– Ebazpen hau eta behin betiko zerrendak, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:



- [https://hezigunea.euskadi.eus/\(sartu «Erabiltzailea» eta «Pasahitza»\)](https://hezigunea.euskadi.eus/(sartu%20«Erabiltzailea»%20eta%20«Pasahitza»)) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko oposizio-lehiaketa» edo «2022ko EPE. Irakasleak. Oposizio-lehiaketa arrunta», kasuaren arabera – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (aukeratu kidegoa eta espezialitatea) – «Emitzak» – «Unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera: baztertuak» edo. «Programazio didaktikoa: baztertuak», kasuaren arabera.
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> («EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko oposizio-lehiaketa» edo «2022ko EPE. Irakasleak. Lehiaketa-oposizio arrunta», kasuaren arabera – «Oposizio-fasea»

4.– Interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen aurka, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 19a

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria,
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.